

URDAIBAI

2017
Nº 11
.....

© MAGAZINE ONLINE

GERNIKA - LUMOKO LIBURUTEGI BARRIA, **HURBILAGO**



■ JOSE MARI EGUILEOR, MUNDAKAKO
DOINUA

■ JUAN CARLOS LÓPEZ QUINTANA,
ARKEOLOGOA

■ INDABAK, NEGUKO GOZAGARRI

■ ARRANO ARRANTZALEA,
"BANDERA" ESPEZIEA

■ TXARRIBODA, BASERRIKO ERRITUALA

■ SUKARRIETAKO "KOLONIAK"



Portu onera iristea

*Llegar a
buen
puerto*



euskadiko kirol portuak
puertos deportivos de euskadi

www.ekpsa.eus

BASQUE COUNTRY
LOGISTICS

Euskadi, auzolana, bien común



PUERTO DE HONDARRIBIA · PUERTO DE MOLA HONDARRIBIA · PUERTO DE DONOSTIA
PUERTO DE ORIO · PUERTO DE GETARIA · PUERTO DE DEBA · PUERTO DE MUTRIKU
PUERTO DE BERMEO · PUERTO DE MUNDAKA · PUERTO DE ARMINTZA · PUERTO DE PLENTZIA

LIBURUAK baino gehiago

Gizartea eta kultura lotzen dauen lan profesionala da kultura kudeaketa. Honek, bizitza sozio-kulturala garatzeko gunea sortzen dau. Udal liburutegi bat, azpiegitura eta zerbitzu gisa, marko horretan ezinbestekoa da. Komunitate baten beharriari egokitzen da eta liburuak baino gehiago eskeini behar dau honek. Liburutegia batzeko gunea da, ezagutzara askatasun osoz heltzeko lekua, pentsamendura, kulturara, informazinora heltzeko gunea, hain zuzen be. Kultura bizitzeak bizi kalitatearen, norbanako erabakien eta pertsonen zein talde sozialen parte garrantzitsua dala ohartzera laguntzen gaitu.

UNESCOk << tokiko zein nazio mailako agintariei liburutegi publikoen alde egitera eta hauen garapenean parte hartzeraz animatzen dau>>. Liburutegi publikoen gaineko manifestuak horrela adierazten dau: << Komunitateko kide guztien eskura egon behar dira zerbitzuak. Horretarako, ondo kokatutako eraikinak izan behar dira, irakurtzeko eta ikasteko areto onak izan behar dauz, teknologia egokiekaz eta ordutegi egokiagaz. Liburutegira hurbildu ezin dabenentzeko zerbitzuak gehitu beharko dauz >>.

Gernika-Lumok liburutegi barria behar dau.

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gurekin harremanetan jarri hemen:

komertzial@nuevaeuropa.com

tel.: 94 625 06 06

www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN
LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen
hirugarrenen emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L
Carlos Gangoiti, 15, bajo
Gernika-Lumo (Bizkaia)

nuevaeuropa@nuevaeuropa.com
www.nuevaeuropa.eus

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso du.



ERREPORTAJEA 04

GERNIKA - LUMOKO LIBURUTEGIA,
hurbilago



VISIT URDAIBAI 10

BATZAR - ETXEA
Geure sustraien erakargarritasun
turistikoa



ELKARRIZKETA 12

JUAN CARLOS LÓPEZ QUINTANA
Arkeologoa



LEKUKO 16

SUKARRIETA "KOLONIAK"
Atzo eta gaurko umeen ongizatea



KALERIK KALE 18

JOSE MARI EGUILEOR,
Mundakako doinua



SALTSA-PORRU 22

INDABAK,
neguko gozagarri



BERDEAN 24

ARRANO ARRANTZALEA,
"bandera" espeziea



BETI-JAI 30

TXARRIBODA,
baserriko errituala

GERNIKA-LUMOKO LIBURUTEGI BARRIA, HURBILAGO

Gernika-Lumoko liburutegi barriaren proiektua gauzatzeko aurrerapausu barri bat emon da. Gune barria Pasealekuko “Nesken Eskola Publikoetako” udal eraikinean kokatzeko ideien lehiaketa atarako dau Gernika-Lumoko Udalak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egin beharreko eraikinaren desafezkzioa, 2016.urteko maiatzean eskatu zan formaltasunez.

Gernika-Lumoko liburutegi barria Pasealekuan egiteko helburua aspalditik dator eta 1987.urteetik alderdi politiko ezberdinen hauteskude programetan elkargunea izan zan. Baina helburu hau lortzeko kudeaketa lana beharrezkoa zan. Izan be, Eskola Publikoen Iparaldeko eraikina aske utzi behar zan, bertan liburutegia kokatzeko. Bertan kokatzea zegoen aurreikusita eta. Haurreskolako gelak gaur egungo kokapenara joan behar ziran, Allende Salazar eskolara, eta horregatik, DBHa institutuaren ondoko eraikin barrira pasatu behar zan. Eraikitze lanak atzeratu ziran eta honegaz batera kate osoa. Bigarren zailtasun bat be zegoen eta dago oraindik, eraikinaren desafezkzioa, hain zuzen be. Udal jabegoko eraikina zan baina Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari lagatuta (*).

Liburutegi barria 2008. urteko amaieran zabalduko zala esan zan sasoi baten. Ordurako, eraikin barriak Jose Antonio Arana Martija, Euskaltzain gernikarraren izena eramango ebala bagenekien. Erabaki hau Osoko Bilkuran onartu zan,

Gaur egun, eta duela 25 urtez geroztik, Gernika-Lumoko liburutegia Kultur Etxeko beheko aldean kokatzen da, 200 m²koa da eta 46 plaza dauzka. 5000 bazkide daukoz eta dagoen lekua eskasa da. Horrela, ezin jake eskeini behar dan moduko zerbitzua erabiltzaileei. Halanda be, azken urteotan, azterketa garaian, ordutegia zabaldu egin da eta ikasketarako gela bat atondu da lekua gehituz.



URTEA, HASIERAKO AUKERA, IPARRALDEA

Hasierako planteamendua, 2007. urtean, liburutegia Pasealekuko Eskolen eraikinaren iparraldera (600m²) eramatea zan, txikipark-aren gaineko aldean. Eraikinaren hegoaldea (715m²) talde kulturalentzako eta ikasketa geletarako erabiliko zan. Baina 2007-2011 legegintzaldian, udal gobernuak (EA) Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailagaz Berritzeguneko bulegoak Kultur Etxera eramatea negoziatu eban, eskoletako eraikinaren desafekzioaren truke. Sasoi hartan, Berritzegune Udal Euskaltegiaren hirugarren solairuan zegoen eta lokal handiago bat behar eban. Baina udal korporazioko alderdi politikoen artean ez zan lortu adostasun bat eta negoziazioa bertan behera geratu zan. ANV-k, EAJ-PNV-k, PSE-k eta Aralarrek ezezkoa emon ebeen, hitzarmen honek kultur etxea mugatu egiten ebalakoan.

Eta liburutegiaren zirriborroa edo aurreproiektua bazegoen be, Pasealekuko Eskoletako Iparraldeko eraikinerako, Berritzeguneko bulegoak bertara eraman ziran. Horrela, liburutegia bertara eramateko aukera blokeatuta geratu zan. Ordutik hona, proiektua hegoaldean kokatzen da.

(*) Pasealekuko eraikin biak, iparraldekoa eta hegoaldekoa, udal jabegokoak dira eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak erabiltzen dauz hezkuntza erabilpenetarako. Hauen desafekzioa lortu arte, ezin jake bestelako erabilpenik emon.

PASEALEKUKO ANTZINAKO ESKOLEN HEGOALDEKO ERAIKINAREN DESAFEZKIOAREN ESKAERA.

2008. urterarte, Allende Salazar ikastetxearen ikasleek erabili ebeen eraikin hau. Urte horretan, Zearreta kalean dauden Allender Salazar ikastetxeko instalazinoetara joan ziran eta 2008. urtetik Pasealekuko eskoletako hegoaldea hutsik dago ofizialki. Halanda be, 2009. urtean gazteek okupatu ebeen hegoaldeko eraikina, Gaztetxea bilakatuz. Astrara joan ziran 2012. urtean. Okupazio sasoi honetan, udalak "Zapatero Plana"ren bitartez, eraikinaren estruktura sendotzeko hobekuntzak egin ebazan.

2012. urtetik aurrera eraikina ez zan barriro erabili hezkuntzarako eta Eusko Jaurlaritzak ez dau ezetzik esaten udal jarduera edota zerbitzurako erabilpena emoteari. Gernika-Lumoko udalak, 2014ko martxoan, aho batez onartu eban Osoko Bilkuran eraikinaren hegoaldea desafektatzeko eskaera egitea, udal erabilpena berreskuratzeko asmoz.

Desafekzioa erraztuteko Hezkuntza Sailari (EJ) erantzun arin bat emotea erabakitzen dau, "04 SGEED Allende Salazar Ikastetxeko antolaketa Plan Bereziaren" behin betiko onarpenagaz. Ikastetxeko (Zearreta Kalea) leku faltari irtenbide bat bilatzeko prestatu zan plan hau. Izan be, haurreskola gehitu zan (0 eta 2 urte) eta bestelako beharrian batzuk be bazeuden, Amara Berri hezkuntza sistemaren kalidadezko irakaskuntza bermatzeko, hain zuzen be.

Allende Salazar Ikastetxeko Plan Berezi honen helburua instalazioen handitzeko beharrianak konpontzea da eta Allender Salazar Ikastetxe Publikoaren instalazioen barruan erabilpen guztiak mantentzea bermatzen dau. Horrela, hezkuntza zentroak ez dau erabili behar Pasealekuko antzinako eskolen hegoaldeko eraikina.





PASEALEKUA, GERNIKAKO BIHOTZA

Bere kokapena eta historiagatik Gernika-Lumora eta gernikarrentzako ezinbesteko gunea da. Betidanik topagunea izan da; zutunik iraundu eban 37.urteko bonbardaketaren ondoren eta herriko erdi-erdian dago.

Hegoaldeko eraikinaren erabilpenak

1927	Nesken Eskola Publikoak
2006	Elai Alai dantza taldeko egoitza jubilatuekaz partekatuta
2006	Pasealekuko Haur Eskola
2008	Allende Salazar-era doaz eskolak eta hutsik geratzen da .
2009	Gaztetxea
2012	Gaztetxea Astrara doa eta gunea libre geratzen da
2017	Oraindik dago libre

Iparraldeko eraikinaren erabilpenak

1853	Gernikako lehen frontoia
1885	Frontoiaren gainean mutilen Eskola Publikoak eraiki ziran
2006	Eraikinaren arkupeak zarratu egiten dira Txiki Park-a zabaltzeko
2007	Txiki Park-en irekiera
2008	Berritzegunearen lekualdatzea



2017

AURRERAPASU BAT EMOTEN DAU UDALAK

Pasealekuko Eskola Publikoen hegoaldeko eraikinean Gernika-Lumoko liburutegi barria egokitzeko ideien lehiaketa bat laster antolatuko daela iragarri dau Udalak. Herriko aldarrikapena eta beharrezana txanpon bardineko alde biak dira, liburutegi zerbitzu egokia Gernika-Lumon. Hezkuntza Sailak (EJ) eraikina desafektatzeko eskaerari jaramon egin ezkerro, eta epe guztiak bete ezkerro, liburutegi barria gero eta hurbilago egongo da.

Pasealeku inguruko mugikortasun arazoak konpontzeko proiektu integraztaile baten baitan dago liburutegi barriaren proiektua. Irigarritasun plan horrek erdigunea herriko goikaldeagaz lotu gura dau, bertan dagoz anbulatorioa, nagusien egoitza edota Batzar-Etxea.

Liburutegi barriaren gunea ahalik eta gehien aprobetxatzeko, udalak eraikinaren ondoan beste eraikin bat egitea aurreikusten dau. Aldameneko eraikin honetan bulegoak, komunak eta bestelako zerbitzuak egongo ziran. Horrela, liburutegirako leku gehiago gordeko da.

1. Gernika- Lumoko liburutegia barrutik

2. Pasealekua

3. Pasealekuko antxinako eskolen hegoaldeko eraikina

Gripearen
aurrean,
gogorrarena
ez egin

Jarri
txertoa



Ante
la gripe,
no presumas
de ser fuerte

Vacínate



GRYPEAREN AURKAKO 2017ko TXERTAKETA KANPAINA

65 urtetik gora dituztenentzat,
gaixotasun kronikoa
dutenentzat eta haurdun
dauden emakumeentzat



Osakidetza

CAMPAÑA DE VACUNACIÓN ANTIGRIPIAL 2017

Para mayores de 65 años,
personas con enfermedades
crónicas y mujeres
embarazadas

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ARROLAGUNEK ORAIN 2300 URTEKO URDAIBAICO BIZITZA BIRSORTZEN DAU



Arratzuko herriak,
Gernika-Lumotik
4 kilometroa,
Arrolako
Oppidum-aren
Interpretazio
Zentroa gordetzen

dau bere Kultur Etxean. Arrola Bigarren Burdin Aroko herrixka gotortua da (K.a VI.m-K.o 1.m), Kantauri Ekialdeko garrantzitsuenak. Erakusketa gune atsegin baten, Arrolako *oppidum*-aren benetako neurriko etxola baten erreprodukzioak, hilobiratzeen berregiteak eta kalidade handiko ilustrazioetako panelek orain 2300 urteko Urdaibai bizitza agertzen dabe, Bizkaiko historia ezagutzeko ezinbestekoa.

Arrolako *oppidum*-aren aztarnategia, Burdin Aroko defentsarako gotorleku garrantzitsuenen aztarna da. Bizkaiko Foru Aldundiak ikerketa eta berreskurapen kanpaina burutu dau bertan aztarnategia balioan jartzeko.

Defentsa sistema sofistikatuak

Izen bereko mendiaren tontorrean kokatuta, Arratzun, Arrola Bigarren Burdin Aroko (K.a 6. m- K.o 1.m) herrixka gotortu izugarria da. Arrolagunek gotorleku honetan zehar egiteko ibilbidea eskeintzen deus. Herrixka honen ezaugarri nagusiak bere kokapena eta fortifikazioa dira. Ezagutu bere harresi zeharkaezinak, penintsulako iparraldeko garrantzitsuenak eta bere defentsa sistema sofistikatuak

Biziraupena, erronka bat

Nolakoa zan bere habitata, bere bizimodua, ohiturak, hileta-errituak... Arrolako *oppidum*-aren benetako neurriko etxola baten erreprodukzioaren bitartez, etxe hauek nola eraikitzen ebezan, nolako zan euren elikadura, nolako zan uza biltzea, nola lan egiten eben egurra edota burdina... erakusten da.

Ezinbesteko bisita

Urdaibai Biosfera Erreserbako landa inguru pribilegiatuan, Arrolagune bisitatzea plan perfektua da, familian, bikotean edota lagun artean igarotzeko. Erakusketaren edukien zorrotasun historikoa, dibulgaziorako tratamendua eta ilustrazio zein berregiteen edertasun eta errerealismoak, hainbeste urtez egindako indusketa arkeologikoen eta ikerketa lan handiaren emaitzak dira.

Ordutegia: Zapatu eta domeketan, 10:00etatik 14:00etara.

Gernikatik Arratzura heltzeko BI-2224 errepidea hartu behar da.

Indigena Bizia Urdaibain orain 2300 urte

Bisitak: Zapatu eta Domeketan
Ordutegia: 10:00h. - 14:00h.

Tlf: 634 24 37 62
Email: arrolagune@visiturdaibai.com

Arrolagune: Lolola Auzoa 4
48383 Arratzu (Bizkaia)



Arrolako *Oppidum*-aren
Interpretazio Zentroa



Visit Urdaibai

GEURE SUSTRAIEN ERAKARGARRITASUN TURISTIKOA

Batzar-etxeak eta Gernikako Arbolak osatzen daben bilduma monumentalak edertasun arkitektonikoa eta artistikoa erakusten dau. Honek Euskal Herriko esentzian murgiltzen dau bisitaria. Gordetzen dauen historiak jatorri ezberdineko pertsonengan interesa sorrarazten dau. Aurton, 2017an, udan inoizko bisitari gehien izan dau.

Uztaila eta abuztuan 49.308 pertsonak bisitatu dabe Gernikako Batzar-etxea, azken hamarkadako erregistrorik onena lortuz. Iazko sasoi berberagaz alderatuta %10,4ko igoera orokorra suposatzen dau honek. Urte amaieran Batzar-etxea 100.000 bisitariak gaindituko dauz barriro be. Udako bisitariekaz batera

urtean zehar egoitza parlamentarioa bisitatzen daben talde antolatu asko gehituko dira eta. Zenbaki hauek bere erakargarritasuna frogatzen dabe eta gune hau gehien bisitatzen den Bizkaiko hirugarren gune historiko-kulturala bilakatzen dabe, Guggenheim eta Arte Ederren museoan atzetik.



19.691
UZTAILA

29.617
ABUZTUA

Estatutik (%61)

Atzerritarrak (%22)

Euskal Herriatik (%17)

GUZTIRA
UZTAILA ETA ABUZTUA

49.308
BISITARI

Batzar-etxeak, Gernikako Arbolaren lekua, udako hile bietako eguneroko batezbesteko 795 bisitari hartu dauz. Abuztuan 950 pertsonen muga gainditu zan. Gainera, bigarren urtez jarraian Estatutik kanpo etorritakoen erregistro guztiak gainditu dira. Batzar-etxean 2003. urtean estatistikak egiten hasi ziranetik zifrarik altuenak lortu dira. Uda hontan mila pertsonatan igo da, guztira 10.941 bisitari.

Euskal Herriko Parlamentua ezagutzera hurbildu zirenen %83a Euskal Herriatik kanpokoak izan dira. Turismo familiarra da nagusiki, beste erkidegoetatik eta europatik etorritakoa. Estatutik katalanak, andaluziarrak eta madrildarrak nagusitzen dira. Beste herrialdeetatik etorritako turistek udan Batzar-etxera etortzen direnen %22a suposatzen dabe, gehienak europarrak. Hauetatik, ia heren bat Frantziatik etorritakoak dira, hauen atzetik italiarrak, alemandarrak eta ingelesak.

EMAKUMEOK, beste arrakasta bat

120.000 pertsonatik gora bisitatu dabe *"Emakumeok. Gernikako Arbolaren Aurrean"* erakusketa, Gernikako Batzar-etxean egondakoa. Emakumeak euskal bizitza publikoan izan dauen aintzatespena eta ikusgaitasuna bultzatzen dauen erakusketa da. Izan be, publiko arrakasta ikusita, Bizkaiko Ganbarak beste hilabete batez luzatu eban erakusketa eta amaiera borobila emoteko, *"El Besamanos"* koadroaren antzespene egin zan, Beti Jai Alai Dantza Taldearen eskutik.

Ekitaldi hau guztiz arrakastatsua izan zan be. Ana Otadiuk, Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentek erakusketa honen helburu nagusiak horrela azaldu dauz: *"Egoitzak zabaltzea eta historia ezagutu arazotea. Batzar Nagusien ondarea balioan jartea eta emakumeek bete daben lekua ikusgai egitea"*.



Gernikako Arbola

Juan Carlos López Quintana "SANTIMAMINE GEURE PROIEKTU MAITEA DA"

1

Historiaurrean lizentziatutako arkeologoa, Santimamiñeko ikerketa arkeologikoaren programaren zuzendaria eta Argiri Arkeologia Elkarteko sortzailea eta presidentea da. Berak, inork baino hobeto ezagutzen dau geure eskualdeko iragana. Historian bizirik iraun dabezen baliabide arkeologikoaz guztiok gozatu eta hauek ulertzea da bere helburuetariko bat. Geure ondarea ezagutzera emoteko eta balioan jartzeko grina horren ondorioz, Agirik Urdaibaiko Ibilbide Megalitikoa sortu dau.

Zelan sortu zan Agiri Arkeologia Elkartea?

Nire aldetik, nik Arantzazun ikasi neban eta han bi gauza interesgarri aurkitu nebazan, liburuak, Barandiaranen bilduma, Auñamendi...eta paisaia. Gernikara etortzean, espeleologia egiten eban pertsona taldeagaz batunintzen, 80-81. urte inguruan. Lan bat sortzen hasi zan; gutariko batzuk espeleologiaren gaineko lana eginez eta beste batzuk kobazuloak giza-ikusuntuagaz esploratzeko lana hasi gendun, ikuspuntu arkeologikoagaz.

Azkenean banatu giñen eta talde arkeologiko bat sortzea erabaki gendun. Horrela, 1985. urtean Busturialdeko lehen arkeologi jardunaldiak antolatu genduzan. 86.enean burutu ziran, baina 85. urte osoa lanean emon gendun. Erakusketa bat eta hitzaldi ziklo bat prestatu genduzan eta lan handia izan zan.

Hasibarriak giñen eta ez giñen konturatu bez baina hitzaldi zikloa urtarilaren 1etik 4ra antolatu gendun. Ezin dot ahaztu, mahatsak jan da segiduen Gernikako Kultur Etxera joan giñela lan guztia bukatzeko, izan be, urtarilaren 1ean, meza ostean zabalitzen zan erakusketa. Arrakasta handia izan zan, areto guztia jendez gainezka zegoen. Hortxe finkatu zan Agiriren hasiera. Ikertu, aztertu, kontserbatu eta zabaldu. Horixe da geure helburua.

Zenbat lagun zagoze elkar tearen barruan?

Orain, Agiri 9 pertsonaz osatuta dago: hiru arkeologo (hoietako bi urpekari arkeologoak), kontserbatzaile-barriztatzaile bat, topografo bat, eta diasporan dauden beste lau pertsona, bata Bartzelonako Unibertsitatean, beste bat Atapuercan,...

Hauxe da Agiriren enbor nagusia baina lagun gehiagogaz egiten dogu lan taldean 20 urtetik ona. Geure lana, ona izan bada, taldeko lana izan dalako da.

Zeure zuzendaritzapean Agirik Busturialdeko sasoi megalitikoa induskatu, ikertu, berreskuratu eta balioan jarri dau

Mesolitotik historiaurreko amaiaerarte lan egiteko zortea izan dot. Hau da, glaziar garaia amaitu zanetik, orain 10000 urte, historiaurrearen amaierarte. Hortxe dagoz mesolitikoa, neolitikoa, Kobre Aroa, Brontze Aroa, gehien lan egin dodazen faseak dira, Urdaibaikoak eta Gorbeiaikoak.

Hauexek ariman gordeta dauzkadan guneak dira. Urriko hirugarren asterarte Gorbeian ibili naz lanean. Hantxe honakoa induskatu dogu (2001. urtetik): hiru trikuharri, zutarri bat, bi asentamentu... Urdaibain fase hauetan oinarritu gara baita be baina Santimamiñeko proiektuagaz sasoiak gehitu behar izan doguz. Izan be, kasu honetan paleolito amaierako estratigrafia da garrantzitsuen.

Hauxe egin dogu enpresa gisa neolitiko gauzak soilik ezin dozuzelako egin. Atxagakoa kobazuloa induskatu dogu be, Urdaibaiko aztarnategirik zaharrena da hau (Forun). Ez dogu egiten arkeologia historikoa, salbuespenak salbuespen.

Nortzuk ziran Urdaibaiko bizilagunak megalitikoan?

Fisikoki, gure antzerakoak izango ziran, *Homo Sapiens Sapiens* ziran eta. Aztarnen kontserbazioan izandako ezberdintasunak dago arazoa. Paleolitotik ez dogu ezer ezagutzen geure inguruan. Nik dakidala Lekeitioko Santa Katalinan magdalenien garaiko hagin batzuk dagoz, ez dago besterik.

Neolitotik aurrera badagoz gizakien aztarnak, batez be kobre eta brontze sasoiak. Historiaurreko alderik politena nonor "zuzenean ezagutzea" da, guk beti be "anonimoekaz" lan egiten dogulako. Santimamiñekoak ezagutzen dodaz euren tresnak, egindako suak, ehizatutako animaliak ikusita...baina ez dakigu nortzuk diren. Hurrengo fasean azterna gehiago agertzen dira.



HISTORIAURREKO ETAPAK EUSKAL HERRIAN

Harri Aroa

1goa Paleolitikoa

- Paleolitiko behea: 250.000-130.000 B.P.
- Paleolitiko erdikoa: 130.000 - 35.000 B.P.
- Paleolitiko goikoa: 35.000 - 10.000 B.P.

2. Mesolitikoa: 10.000 - 6.000 B.P.

3. Neolitikoa: 6.000 - 4.500 B.P.

Metal Aroa

1. Kobre Aroa: 4.500 - 3.800 B.P.

2. Brontze Aroa: 3.800 - 2.800 B.P.

3. Burdin Aroa: 2.800 - 2.000 B.P.

Gogoratzen dot Santimamiñen, 21 eta 35 urte bitarteko gizon baten burezorra erakusten gendula, orain 3700-3600 urte lurperatutakoa. Bere profil genetikoa ezagutzen gendun, bere elikaduraren gaineko gauzak edota bizkarrezurran izandako patologia (artrosia) eta hortzaginak. Orduan, persona hori "zuzenean" ezagutzean, nolakoa izan zan imajinatzen dozu.

*B.P.
(before Present)

Datak neurtu bako orainaldia aurreko urteetan agertzen dira. 250.000 urteko hasierako data Euskal Herrian izandako gizakiaren presentziaren lehen lekukoekaz dago lotuta (estratigrafiaren berreskuratutakoak).

1. eta 2.
argazkiak,
Santimamiñe

 **Busturialdeko**
mankomunitatea

Jasangarritasunagaz bat!



94 625 68 84 - 94 625 47 22 / busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org



Katillotxu 1

Egiten dozun lanerako zorroztasun zientifikoa eta imajinazio pixka bat behar da...

Imajinazioa bakoitzaren araberakoa da. Orain zientziak informazio asko emoten dau. Adibidez, nafar pirineoan orain 6600 urte hilobiotutako 30 urte inguruko emakume baten gorpu osoa agertu zan; honen azterketari esker bere gaineko mila gauza dakiguz.

Forense gaietan aplikatutakoa historian be erabiltzen da. Otziko momia da beste adibide bat, italiar Alpeetan. Honi buruzko pila bat gauza ezagutzen doguz: 46 urtekoa zala, 1,59 metroko altuerakoa, 50 kilokoa. Bere elikadura, gaixotasunak, tatuajeak, zenbait minak kentzeko egindakoak....Bere aurpegiaren itxura berregin da eta ahotsa be ipini deusagu. Hori guztia zientziari esker da.

Busturialdeko ibilbide Megalitikoa sortu dozue. Zertan datza?

Geure ondarea balioan jarri eta zabaltzeko baliabide integratzaile eta paisaiakoak bilatu behar dira. Oinez ibiltzea, naturaz gozatzea, monumento megalitikoekaz batu. Horrela sortu zan ibilbide hau.

Trikuharri eta tumuluetatik ibilbidea. Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzagaz triptikoak, panelak, seinaleztapena egin zan. Inaugurazinarako martxa megalitiko handi bat egin gendun. Urdaibaiko mendi talde bigaz egin gendun lan eta gustora parte hartu ebeen. Guztion artean antolatu gendun, Busturiako udalaren laguntzagaz. Azken honen bitartez zuzendu gendun dirulaguntza.

Domeka bat izan zan, Bermeoko geltokira heldu giñen, bertan geratu giñelako, eta 100 bat persona batu zan bertan! Eta ibilbide luzea zan! Guztiz arrakastatsua izan zan. Ondare hau zabaltzeko modurik onena mendi-ibiliak eginez azaltzea da.

Zer dira trikuharriak eta tumuluak?

Europako Mendebalde osoan neolitiko garaian emon zan fenomeno da Megalitismoa. Arkitektura monumentaletako fenomeno da, konplexuak eta forma

anitzekoak; Heriotzagaz eta honen gaineko errituekaz lotutako harri handiak. Baina geure inguruan sinpleagoak dira, forma anitz gutxiago eta tamainu txikiagokoak dira. Barietate megalitikoaren artean, batzuk hiletakoak dira (trikuharriak eta tumuluak) eta beste batzuk osagarriak dira, trikuharrien inguruan dauden zutarriak, adibidez. Irlandan edo Britainia Handian itxurak anitzak dira. Baina hemen trikuharri txikiak dauzkagu, harrizko hilobi-kamerak, tumulukaz estalitakoak.

Zergatik batzuk tumuluak eta beste batzuk trikuharriak? Hilobi-ganbara izanezkero trikuharria da eta hau ez badago tumulua da. Halan da be, induskatutako tumulurik gehienek ganbara dauke. Adibidez, **Katillotxu 5** tumulu gisa kalifikau zan eta trikuharria da.

Zergatik dira hemen aniztasun gutxiagokoak eta txikiagoak?

Gauza askogatik, goiztiartasunagatik, adibidez. Megalitismoa arinago sortzeak itxura gehiago agertzea ekartzen dau. Herrixka garrantzitsuak egoteak be eragina dauka, frantziako Britainian bezalako nekazarien taldeak egoteak. Egiteko denbora behar da, herri oinarri sendoa eta lehengai ona egon behar da monumentuak eraikitzeko.

Ibilbide Megalitikoaren barruan 5 trikuharri, 4 tumulu eta zutarri bat dagoz, Katillotxu eta Sollubeko mendietan. Gehienek heriotzagaz lotutakoak. Egin al dogu ibilbidea?

Guztien ezaugarri nagusia baso inguruan daudela da eta guztiak *ikutu* izan dira. Busturian dagoen bat ia guztiz

hondatuta dago, ezin da ikusi bez. Gainerakoak be *ikutu* izan dira, Katillotxukoak izan ezik. **Katillotxu 1** ohiko hilobi kolektiboa da. Honek tresneria gordetzen dau, lehengaietako gauza interesgarri asko, Ebrotik etorritako silexa, kasuan kasu.

Nondik datozen oraindik zehaztu ez doguzen beste lehengai batzuk be aurkitu doguz hemen. Frantziako Pirineoak edota Leon inguruak miatu doguz horretarako.

Katillotxu 5 oso ondo dago kontserbatuta, guztiz ezberdina da, oso pertsona gutxikoa da, behar bada gizartean ospe handikoak. Hauen omenez dekoratutako monumentua da, oso ondo antolatuta. Tresneria ez da hain garrantzitsua hemen, ez dagoz gauza handiak uzteagaz arduratuta, baizik eta inguruaz. Europa osoan horrela egiten zan be, hilobi kolektiboak utzi eta bakarkakoak egin.

Gehienetatik ez dakigu ezer ez direlako indusketak egin. Baina hoietako batzutan luberriketa-lanak materialak utzi dabez agerian; Pakotene eta Urkidi neolitiko faseko antzinako trikuharriak dira seguruenik.

Eta induskatu gabeko gainerakoek, Añabusti eta Sollubeko Iturrikoak Megalitismo faserik barrienaren materialak daukez. Baina horrek ez dau esan gura aurrekoena ez izatea. Añabustin, Barestitako lepoko txirtxilu bat agertu zan, historiaurreko harri berde bat. Harri hau neolitikoan Iberiar Penintsulan eta Frantzian mugimendu handikoa da.

Zer suposatzen dau zuretzako Santimamiñe?

Santimamiñe geuretzako proiektu maitea da. Jente asko ezaugutu dogu honi esker, taldea handitu eta errotu dogu, eta proiektu honegaz geure lanik hoberenetakoa argitaratu dogu. Barandiaranen lekukoa hartu dogu eta errespetu osoz egin dogu.

Santimamiñe geure proiektu nagusia da eta pozarren gagoz. 2014.ean ikerketa gelditu gendun, kolapsatuta geratu giñelako, landa-lanan asko aurreratu gendun eta. Santimamiñeko monografia bat egin dogu eta beste hiru egin behar doguz. Orain bigarrenagaz gagoz.

Ze beste proiektu daukazuz Busturialdean?

Aurton ez dogu Urdaibain lanik egin. Igorren izan gara, Areatzan, Gorbeiaiko parke naturalan, Berritxun, eta unean-unean Lekeitio be. Berritxun oso proiektu



garrantzitsua daukagu, ilusioz beteta gagoz honegaz, Goikolau kobazuloko proiektua, hain zuzen be.

Barandiaranek 1962.urtean induskatutako koba da hau. 1980. eta 1981. urte bitartean Deustuko beste arkeologo batek (Basas) induskatu eban. Guk datuak eguneratzen gabiz eta informazio oso onak bilatu doguz. Kobazulo honetan Barandiaranek aurkitu eban grabatu batzuk dagoz, paleolitikokoak izan ahal zirenak. Baina beste arkeologoek sasoi orainsuagokoak zirela esan ebeen. Orain, argi geratu da paleolitikokoak direla. Oso lan polita izango da.

Eta Urdaibain lan bat aukeratzekotan, zein?

Gutxienez beste bi trikuharri induskatu gurako neukez Urdaibain.

Belaunaldi barriei begira...ordezkorik al dago?

Unibertsitatean, masterrak espezializazioari zuzenduta dagoz. Hauetan jente larririk ez, baina badago jentea. Gasteizen urtero egiten da master bat eta 12-14 ikasle dagoz.

Guk egiten doguna inork ez dau gura egin orain. Belaunaldi barriek ikerketetan, laborategietan sartzen dira, gauza zehatzak aztertu gura dabez. Geure lana zuzeneko arkeologia da, landa-lana. Beste era baterako lana.

Masterreko arduradunekaz batera ikerketa lanak egiten doguz eta eurek geure ikerlanetan parte hartzen dabez. Geure lan egiteko era ona dala frogatu dogu.

3. 4. 5. argazkiak : Agiri Arkeologi Elkarte
Sorbituagako Monolitoa - Ariatara (Busturia)



SUKARRIETAKO "KOLONIAK", ATZO ETA GAURKO UMEEN ONGIZATEA

HASIERAK.

XX. mende hasieran Bizkaiko gizartearen errealitatea ez zan gaur ezagutzen eta gozatzen dogun ongizatearen gizarte bezalakoa. Desbardintasunak eta era guztietariko gabeziak, batez be elikaduran, garbitasun eta osasunean, ohikoak ziren herritarren artean.

Haurretan egoera hau hobetzeko helburuagaz, Bilboko "Caja de Ahorros Municipal"ek 1925ean Sukarrietako Abiñako San Antonio auzoan, Begoñako Andra Mariren Prebenterioa sortu eban, gaur egun Sukarrietako Umeen Udalekuak.

Proiektua Ricardo Bastida arkitekto eta hirigileari agindu eutsen. Honek, eraikin, instalazio eta gune ezberdinak egin ebazan, osasuna hobetzeko erakundeak aurreikusitako sendabide iraultzaileak lantzeko gune perfektuak: haizea, eguzkia, ariketa fisikoa, garbitasun eta elikadura onak, terapia barritzaileak batera. Suitza edota Belgikan lantzen ebezan praktikak bezalakoak, osasun publikoa kudeatzeko abangoardian.

Haurrak urte betez egon ahal ziran bertan, bere osasunaren arabera. Osasunbideak honakoak ziran: eguzki-bainuak, arnas-gimnasia, kalidade handiko osagaiak prestatutako jakiak, bere ohiko bizimoduan eskuratzea ezinezkoak zirenak, eta erosotasun maila handiko instalazioak (logelak batez be), neska-mutil haientzako ezezagunak.

Haurren osasuna babesteko proiektuagaz buru belarri aritu zan Kutxa eta honen ezarpena guztiz arrakastatsua izan zan, ohiartzun handikoa izan zan; garai hartako mediko abangoardiek, pedagogikoek eta kulturelek bisitatu ebeen Koloniako instalazioak.



Gaur egungo eraikina

"KOLONIAKO" JARDUERA GAUR

Gizarteak beharrian ezberdinak izatean, 1985. urtetik geroztik, "koloniaren" jarduera haur-hezkuntzari zuzendu zan. Horretarako, instalazioen ezaugarrietara eta bere kokapen bereziari egokitutako programak lantzen hasi ziran. Aste baterako edota asteburuetak egonaldiak egiten dira orain, urte osoan zehar. Bertan, ingurugiroa errespetatzeko eta bestelako baloreen gaineko hezkuntza sustatzen da, dinamika ludikoen bitartez eta harrera pedagogiko aurreratuagaz.

1. Ingurumen Hezkuntzarako Zentroa

Eskola-umeek naturara, ingurugirora eta honen baloreetara hurbiltzea da programaren helburua. Birziklapena, baliabideen eta inguru naturalen erabilpen arduratsua, elkarkidetzeta eta errespetua lantzen dira.

Eusko Jaurlaritzagaz batera hasi zan programa eta bertan Bizkaiko 90 ikastetxeetako 3000tik gora ikaslek parte hartzen dabe.

2. Asteburua Sukarrietan

Urdaibaiko aberastasun soziokulturala, bere itsas eta landa kultura ezagutu eta bizitzeko esperientzia eskeintzen da bertan, Bizkaiko ikastetxeei zuzendutakoa.

3. Udalekuak

Bizkaiko ikastetxeetan klasikoa da hau. Urtero, 4400 neska-mutilek parte hartzen dabe bertan. Harrera afektiboa eta barritzailea eskeintzen jake, etenbako ikerketa pedagogikoa eta metodologikoren ondorioz. Ingurugiroa errespetatu, elkarkidetzeta, solidaritatea...



Neska eta mutilak arnasa ariketak egiten

Bizkaiko neska-mutilen harrera, hezkuntza eta zaintzaren

92 urteetako historiak, gizarte ongizateko erakunde aitzindaria izatearen ezagutza emoten deutso Sukarrietako "Koloniari". Sortu zaneke garaietan helburu aurreratua izatea, kalidade handiko guneta instalazioak sortzea eta gizarte zerbitzu hau, ia mende batez mantetzea, gizarteak estimatu izan dau eta estimatzen dau.

Askotan, umetan bertan egon ziren asko "Koloniatar" hurbiltzen dira. Garai hartako gomuta ederrak gordetzen dabez, euren ohiko bizimiduan gozatu ezineko ongizateagatik.

1. Antxinako eskola umeak gelan | Argazkiak: BBK artxiboa



Busturialde,
EUSKARA eta
URDAIBAIREN alde



JOSE MARI EGUILEOR

MUNDAKAKO DOINUA (1907-1981)

Egonezin kulturala bete-betean. Hori zan Jose Mari Eguileor mundakarra. Adoreagaz eta bizi izan zauen garaiko zailtasunak zailtasun, kultura, tradizioa eta musikarekiko zaletasuna piztu eban bere herrian. Mundakako esentzia diran ohiturak bizibarritu eta hauei musika jarri eutseen. Mundu guztian ezagunak diran Mundakako Aratustekak, bere estudiantinagaz, edota San Juan gau magikoa, berak utzitako legaduaren parte dira.

Jose Mari Eguileor kulturagaz zuzen-zuzenean lotutako familia baten baitan jaio zan, arteagaz bere forma guztietan lotutakoa eta %100ean musikala. Ebanista lekeitiar baten semea zan, eta artean eta musikan talentua etxean jaso eban.

"Nire birraitxitxe Bixentitxuk bere ondoko portalean bizi zan Resurrección Maria de Azkuegaz partekatu eban bere kulturarekiko pasioa. Hortxe hasten da nire familiaren historia kulturala. Ondoren, nire aitxitxe Tomas Mundakara joan zan Gure Etxearen arotzeria lanak egiteko. Bertan nire amumagaz Karmenegaz ezkondu zan. Ordutik gagoz Mundakan sustraituak", kontatzen dau Zorion Eguileorrek, Jose Mari Eguileorren semea. Bere aitaren egonezin artistikoaren oinordekoa da Zorion, aktorea eta abeslaria da.

Oraindik familiaren eraikina dan, "Fonda"ren eraikinean, Tomas Eguileorrek bere ebanisteria tailerra zabaldu ebanean, bere seme Jose Mariren musika zaletasun handiko bizitzaren hasierako akordeak jo ebazan.

"Nire aitxitxe gitarrista ona zan. Bere seme-alaba guztiek instrumenturen bat jotzea egin eban. Guztiek jotzen ebenen pianoa, batzuk bibolina...eta nire aitak, Jose Mari, eskuetan hartzen eban guztiagaz egiten eban musika. Berak musika egiten eban", gogoratzen dau Zorionek.

Errepublikara garaian, inongo afiliazio politikoa barik, kultura zinegotzia izan zan Jose Mari Eguileor. Honek kartzelara eraman eutson. Bueltatzerakoan, bere printzipioei eutsi eta kultura zaletasunagaz jarraitu eban. Bere aitaren arotzeria tailerrean egiten eban lan. Garai



hartako eskualdeko arotz gehienak bertan ikasitakoak ziran. Kulturazalea izatea gatz egiten zan garai hartan, zentsurak mugatzen ebazan adierazpen artistikoak eta klandestinidadea ohikoa zan artea garatu ahal izateko. Sasoi hartan Jose Mari Eguileorrek arauak hautsi ebazan, bere egonezin kulturei irtenbidea bilatzeko formulak aurkituz eta Mundakako herrian zehar zabaldu eban bere pasioa.

"Kartzelatik irten zanetik musika klaseak ematen ebazan herrian nire aitak. Eleizako organoa jotzen hasi zan, korua prestatu eban eta korukoek antzerkia be egiten ebeen. Kultura kalera ateratzeko euskarria zan eleiza, zentzura gaindituz. Nire aitak tabuak hautsi ebazan eta herrian antzerkia egiten hasi eban. Nire amaren altzoan nengoela aita antzerkia egiten ikustea gogoratzen dot".

Apurka apurka Mundaka Jose Mari Eguileorren talentuaren aurrean errenditu zan. Ia herri guztia egon zan bere arotzeria tailerrean, bertan musika klaseak emoten ebazan eta. Mundakar gehienek txistua jotzearen eragile bera izan zan. Oraindik bizirik dago zaletasun hau herriko txistulari taldeagaz.

"Mundaka herri musikala da. Txikitari ume guztiak joaten ginan txistua eta musika ikasten Jose Mari Eguileorregana, musiko handia zan eta; Urdaibaiko Organoen Zikloak bere izena daroa.", gogoratzen dau Benantzi Bilbaok Mundakako organo-joleak, kontzertu zikloaren sustatzailea.

Batzuk gizon seriotzat hartu ebeen, umore ironikoagaz. Baina bere egonezin kulturala eta musikalak lagun handiak izatera eraman eutsen. Lagun hauek ondo baino hobeto kontserbatu ebazan. Cayetano Luca de Tena, Paco Rabal, edota Carlos Thompson aktore argentinoa bere lagun minak izan ziran. *"Nire aitak Mundakan grabatu zan "Tormenta" pelikularen zuzendaritza artistikoa egin eban. Aktore nagusia Carlos Thompson izan zan eta filmatze lanen bitartean nire etxean bizi zan. Paco Rabal be nire aitaren lagun handia izan zan. Nire bigarren aita kaskarina zan Paco niretzako. Eta Luca de Tenak Madrilen antzerki "meritoriaje" zelakoa egiten lagundu eusten",* azaldu dau Zorion Eguileorrek.

Lagunak baino gehiago izan ziran Jose Gondra, Juanito Lezamiz, Benjamin Izaguirre eta Jose Mari Eguileor. Ia ia klan kultural bat ziran.



Landa Garapen Elkartea / Domingo Alegria enparantza, z/g - 48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
Tel: 94 625-76 09 / www.urremendi.org / urremendi@urremendi.org

Aratuste

Mundakako Atorrek 1960

Aratuste zara, Aratuste, Aratuste, zara, Aratuste,
Mundakarentzat egun obarik ez. tostada eguna ederrak onexek,
marrau atorra zuriakaz onek jan eta, neskak artunda,
buruan pañelu sedazko ederrakaz. plazara dantzan iluntzerarte.

Baita atzo zarrakaz, goiko kalia, ziri ta zara,
Arrasta ezinik, gure elorriyua, harek ziran Aratustiak!

© Mundakako Atorren Elkarte 1960

"Kotx" izeneko euren topagunean, kulturarekiko eta musikarekiko pasioa aske uzten ebeen. Kulturarako sasoi gataxak izan arren, kultura bizi eta kalera ateratzeko bidea topau ebeen.

"Lau jeinu hauei "Estudiantina" bezala irtetzeko baimena eskatzea bururatu jakezan, aratustek debekatuta zeuden eta. Izen horregaz baimena lortu ebeen eta aratuste eguneko kalejira egin zan. Atorraz jantzita joan ziran baina aurpegiak estali barik".

Horrela bizibarritu zan tradizio hau Mundakan, gaur herrian bizirik dagoena eta mundu mailan apartekoa dana. Atorretako estudiantinak Mundakako aratusteetan musikaz eta kolorez betetzen dau herria gaur egun. Tradizio hau urtetik urtera kontserbatzen da Mundakan eta horrela herriak Jose Mari Eguileor omentzen dau. Izan be, kalejira "La Fonda"ko eraikinatik irtetzen da, bertan arotzeria tailerra zegoen hasiera baten eta geroago musika klaseak. Eguileor familiaren eraikinaren ondoan, sasoi batean ostatu zegoen bertan, Mundakako herriak bere kulturaren alde hainbeste egin ebanari dedikatu eutson kale bat, Jose Mari Eguileorri, hain zuzen be.

"Aho batez, alderdi politiko guztien adostasunagaz kalearen plakan haren izena jarri zan. Mundakak nire aitaren lana aitortu dau. Beste onespén bat urtero atorren estudiantina eraikin honetatik irtetzea da. Gainera, hasierako sasoi haietan bezala, aratusteetan abesteko letra barri bat asmatzen da urtero, momentuko gertaeren barri emoteko. Nire aita eta Jose Gondrak letrak eta musika egiten ebeen. Kritikak egiten ebeen kamuflatuak letrak erabilia, portugaleraz, asmatutako euskaraz, frantsesez...".

Letra hauek gaur egun ezinbestekoak dira Mundakako Aratusteen erreperatorioan. Jose Mari Eguileor. Mundakako doinua zanaren esentzia bizirik mantentzen dauen himnoa.

J.M Eguileor kalea Mundakan
Mundakako Aratustek



Elikadura-segurtasuna eta ingurune-segurtasuna

Kontrol analitikoak

Autokontrol planak: arrisku sanitarioen prebentzioa

APPCC eta PGH - Igerilekuak, giza kontsumorako urak eta legionelosisia

Diagnostiko integralak

Barne Airearen Kalitatea (CAI), klimatizazioa, iraungitzeak, bizitza baliagarria, bio-diagnosiak

Aholkularitza

Formakuntza



C/ Zabalea, 13 - Galdakao - T. 944 566 589

www.biotalde.com • info@biotalde.com • biotalde.blogspot.com

Euskadi, auzolana, bien común

 EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDABAK, NEGUKO GOZAGARRI

Gernikako indaba Busturialdea-Urdaibaiko produkturik garrantzitsuenetarikoa da. Bere jatorri-deitura kalitateagaz eta geure nekazal tradizioz onenagaz dago lotuta zuzen-zuzenean.

Indaba gozoak prestatzeko errezeta

Prestaketa:

Indabak lapikoan jarri ur hotzagaz, olio eta fin-fin txikitutako kipulagaz. Irakin eta pil-pilean utzi, 3 orduz. Beharrezkoa bada, ura gehitu. Salda loditzeko su motelean egosi.

Osagaiak, 4 pertsonantzako:

- Gernikako indabak ½ kg
- Kipula 1
- Oliba Olio
- Ura
- "Sakramentuak": odolosteak, txarriak, aza eta pipermina.

Gomendio praktikoak:

1. Su motelean egosi indaba ez apurtzeko.
2. Salda lodia lortzeko, bezperan sukaldatu.

3. "Sakramentuek" ez nahastea gomendatzen da, zaporeak ondo bereizteko.

4. Aurretik indaba beratzen ipini, 6 orduz indabak barriak badira eta 12 orduz sikuak badira.

Indaba ameriketatik etorritako lekaria da. Bizkaian XVIII. mendean hasi zan lantzen eta apurke apurke joan zan geure nekazaritzaren parte izaten. Bere aprobetxamentua eta prestaketa eboluzionatuz joan ziran geure baserrietako elikaduraren oinarri nagusienetarikoa bilakatu arte. Espaniako Hiztegi Geografiko-Estatitikoan, Pascual Madoz-ena (1846-1850), indaba agertzen da, Gernikari dedikatutako atalean. Bertan, ibarran lantzen zela azaltzen da: "...*Gernikako ibarran artoa, garia, indabak eta patatak ekoizten ziren...*".

Gernikako indaba kalidade handikoa da. Geure baserritarren lan onaren eta irmotasunaren adibiderik onena da. Hauek, urtetik urtera, mendez mendez, landutakoari etekinik onena atera deutse eta sasoi baten eguneroko jakia izan zena orain "*delicatessen*" izatea lortu dabe.

Indaba mota honen landaketa eta eboluzio baikorra, baserrietan aurretik ondo aukeratutako haziak gordetzearen oihutari esker gauzatu da. Dibertsifikazioagaz eta ondo pentsatutako hazien trukeagaz aberastu da kontserbazio hau. Honi esker lekari honen ezaugarriak onenak kontserbatu dira eta hobetuz joan da. Gaur egun, ondare kultural gozosa dogu, Inguru honetako lurren ezaugarriak eta mikroklimak borobildu egiten dabe indaba.



Artoagaz batera lantzen da, honek indaba zuzentzen dau. Lotura honek, espezie bien sinbiosia lortzen dau: artoa behar dauen nitrogenoa lurran finkatzen dau indabak.

Gernikako indabaren ezaugarrien artean, bere azala fina eta leuna nabarmentzen dira, baita bere mamin gantzatsua eta zapora gozosa be. Jaki honek proteinak, zuntza, karbohidratoak, mineralak eta bitaminak eskeintzen dauz. Ohiko "*sakramentuekaz*" edota "*alargunak*", olio erre simple batez, sukaldatu ahal dira. Indaba bariedaderik onenak soilik gaintzen dabe frogatu hau.

Janari hau udazkenari oso lotuta dago, bere uztaldiagatik eta salmentako erakustoki nagusia dan Gernikako Urriko Lehen Asteleheneko Azokagatik, hain zuzen be.

Produktu naturalak bilatu eta estimatzen dira gaur egun, hauen jatorriak balio erantzia bermatzen dau. Gernikako indaba gastronomiatik harago joan da, eskualdeko enbaxadorea da eta azokatan zein merkatuetan nagusi da eta bisita turistikoan erosketetan ezin da falta.

Halanda be, azken urteotan, Gernikako indabaren produkzioak beherantz egin dau nabarmen. Joera hau aldatzeko belaunaldien arteko ordezkapena sustatu behar da. Helburu hau jarraituaz lan egiten dau Urremendik, Busturialdeko Landa Garapen Elkarrekin. Honek, orain gutxi lehen sektoreko mahaia sortu dau koordinazio tresna gisa.

Ba al zenekien?

- Indabak beti be estimatu dira, dirua etxera eramateagaz lotuta dagoz erderazko esaeraren arabera "*llevar las alubias a casa*".
- Indaba proteinarik gehien eskeintzen dauen barazkia da, karbohidratoak be dauzka, folatoak, potasioa eta burdina.
- Arabiar *al-lubiya* hitzak adierazten dauenez Amerikako aurkikuntza baino arinago Mundu Zaharran be bazeuden indabak.

BANDERA ESPEZIEA URDAIBAIN



ARRANO ARRANTZALEA

Kontserbazioa, ingurumen-hezkuntza, ekoturismoa... askotan, naturak bere boterea erakusten deusku eta arrano arrantzalea honen adibide da. Hortxe dago, Urdaibaiko Biosfera Erreserban Arrano Arrantzalea Berreskuratzeko Proiektuaren garrantzia, azken bost urtetan garatutakoa. Espezie enblematikoa den heinean, bere karisma eta erakargarritasunagatik eta bere natura balioagatik, Urdaibaiko ekosistema hobetzearen alde egiten dau eta honen bitartez inguru naturala baloratzen eta alkarregaz bizitzen “*ikasi*” egiten dogu.

2013. urtean hasi zan arrano arrantzalea berreskuratzeko proiektua Urdaibain, aparteko espezie hau babestutako gune honetan ugaltzeko asmoagaz. Aurton, traslokazio prozesua amaitu da, hau da, arrano arrantzalearen kumeak ona ekartzearen prozesua. Orain, askatutako arranoak barriro bueltatzea eta hauek Urdaibai euren "etxea" bezala ikustea besterik ez da geratzen.

Arrano arrantzale Europako faunaren hegaztirik enblematikoena da. Oso harrapakari ederra da, bere portaera ezaugarriak berezia egiten dabe. Urdaibaiko erakargarritasun ornitologikorik nagusia da. Urdaibaiko Biosfera Erreserbatik urtero ale batzuk igarotzen ikusten dira, batez be migrazio sasoietan. Honek estuarioa eta bere ingurua espezie hau hartzeko egokia dala esan gura dau.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailak, Nekazaritza Sailagaz batera, bost urtez garatu dau proiektua, 2013.etik 2017.era. Urdaibain arrano arrantzalea berreskuratzeko programa, hain zuzen be, bertan harrapari honen ugalketa gunea sortzeko. Asmo handiko proiektu hau, Urdaibai Bird Center buru dauela, Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu dau %100ean, 290.000 euro bost urtetan. Ingurumen-hezkuntza arloa Eusko Jaurlaritzak finantzatu dau.

Arrano arrantzalea "*bandera-espeziea*" danez, hau da, oso ezaguna dan espezie karismatiko, bere berreskurapenak ingurumen kontzientzia hobetzearen alde egingo dau, Urdaibaiko Erreserba ekoturismoko jomuga lez aukeratzeari lagunduz. Proiektua aleen traslokazioan oinarritu da, Urdaibaira arrano arrantzalearen kumeak ekarriz hauek bertan habiak egiteko. Natura Zaintzeko Nazioarteko Batasunaren (NZNB) irizpideak jarraitu dira horretarako. Urdaibain arrano arrantzalearen ugalketa gune bat ezartzea de berreskurapen proiektu honen helburu nagusia. Baina askoz be gehiago dago.

Aitor Galarzak, Biologian Doktorea eta arrano arrantzalea Urdaibain berreskuratzeko proiektuaren Zuzendari Teknikoak, ekimena nola hasi zan horrela azaltzen dau:

"2012. urtean erakunde ezberdinen aurrean aurkeztutako dokumentua prestatu gendun: Kosta Mugapena, Madrileko Ingurumen Ministerioa, Eusko Jaurlaritza eta Diputazioaren aurrean aurkeztuz. Aldundian begi onez ikusi ebeen eta baiezkoa emon euskuen. Bost urterako proiektua zan. Gainera, lurralde emoilea faltatzen zan, kumeen emoilea, hain zuzen be. Eskoziako Gobernuagaz jarri giñen kontaktuan eta urtero 12 arrano arrantzale gazte jasotzea bermatu euskuen."



Arrano arrantzaleak aklimatazio dorrean



Urdaibai Bird Center-eko bisita gidatua



Arrano Arrantzalea

Ekoturismoa eta Ingurumen-hezkuntza

Arrano arrantzalea espezie ikusgarria da. Gaur egun, mundu osoko hegazti behatzaile gehien erakartzen dauezen hegazti harrapakarien artean dago. Haren itxurak, edertasunak eta gehien bat arrantzan egiteko daukon abileziak espezie oso berezi bihurtzen dabe.

Arrano arrantzalea Urdaibaiko erakargarri ornitologikorik garrantzitsuena da, moko zabala edota txori zezenagaz batera. Bere erakargarritasun turistikoa ingurunearekiko errespetuzko turismo ereduagaz dago lotuta. Errekurtsoen kontserbazioa eta sustapena ahalbidetzen dau honek.

Hegazti oso ezaguna eta ikertua da zientzia mailan. Ingurumen hezkuntzari balore eta ezagutza handia emoten deuto. Urdaibai Bird Center-ek, Urdaibaiko Erreserbaren bi ikastetxeek batera, hezkuntza proiektu bat garatzen dau arrano arrantzalearen migrazioagaz lotuta. *Linking Schools and Communities* izenburua dauko proiektuak eta *The Osprey Migration Foundation*-ek (Erresuma Batua) zuzentzen dau. Ingurumen-hezkuntza proiektuagaz, Urdaibaiko ikastetxeek Skype bidez mundu osoko eskoletako umeez harremanetan jartzen dira, esaterako: Ingalaterra, Gambia, Italia eta EE.UU.

“Arranoa” ezagutu

Migratzailea da. 12.000km zeharkatzeko gai. Munduko ipar eta hegoaldeko gune eta kulturen arteko lotura ahalbidetzen dau bere migrazioaren bitartez.

Bere izaera filopatrikoak berezia egiten dau. Espezie honek bere jaioterriarekiko daukon lotura oso garrantzitsua da, izan be arranoa eta bertan bizi diren pertsoneen artean lotura afektiboa eta kulturala sortzen dau.

Arrano arrantzalea espezie aldakorra da eta estruktura ezberdinetan egiten dauz habiak, arbolatan, haitzetan, plataforma artifizialeetan edota elektrizitate hagatan, besteak beste. Arrantzatzeko aukera gehien emoten dabezen ur guneetan egiten dauz habiak.

Arrano arrantzaleak oso fidelak dira. Habiak eta bikoteak mantentzen dabez. Normalean, bikoteaz aldatzen badira aurrekoa hil dalako izaten da.



**EUSKAL
SOUVENIRS**



Andra Mari kalea s/n.
48300 **GERNIKA**
946 251 930 - 685 758 102



euskal.souvenirs@gmail.com

www.euskalsouvenirs.com



Visit **Urdaibai**
© bai Nueva Europa

**IBILBIDE
TURISTIKOAK**

Kulturalak eta ekologikoak top

KARTARA, UMEKIN
URTE GUSTIAN ZEHA



Erreserbak: www.visiturdaibai.com



Arrano Arrantzalearen bikotea

Migrazioa eta Urdaibai

Europako arrano arrantzale migratzaileek Afrikako mendebaldeko gunetropikaletan igarotzen dabe negua, Mauritaniatik hasi eta Kamerunerarte. Baina askotan Finlandiatik, Suediatik eta Errusiatik etorritako hegaztiak Afrikako ekialde eta hegoaldean emoten dabe negua.

Urdaibaiiparraldetikdatozenarranoarrantzaleenmigrazio-ibilbide betean dago. Hemendik igarotzea gustatzen jake. Gainera, Urdaibaik Hegaztien Babes Berezik Aldea (HBBA ES0000144) eta Kontserbazio Berezik hiru alde daukoz (KBA ES2130007, KAB ES2130008 eta KBA ES2130006). Hau dala eta, babes gune bereziak izanda habitataren kontserbazioa bermatuta dago.

Hemen, arrano arrantzaleak badauko non eta zer arrantzatu. Lurrazalaren %67a arboladia da, habiak egiteko egokia. Urdaibain proiektua garatzeko baldintza teknikoak eta logistiko onak emoten dira, Urdaibai Bird Center-ek garatutako lanari esker. Honen barne, hegazi-faunaren gaineko ingurumen-hezkuntza eta ikerketa aditu-taldea dago. Talde hau Urdaibain arrano arrantzalea berreskuratzeko proiektuaren buru izan da.

Metodoa

Erabilitako sistema traslokazioa da, Eskoziatik Urdaibaira ekarri dira arrano arrantzalearen kumeak. Hegaztiok Urdaibaira heltzean aklimatazio dorre batean geldituko dira hainbat astetan askatu baino lehen. Traslokatutako kumeak habi artifizialetan ezartzen dira (hacking dorrea) eta bertan elikatzen dira, zaintzaileak ikusi barik.

Habi artifizialetan hegaz egiteko gai diren arte egoten dira, orduan askatu egiten dira. Gatibutasun fasean eta migrazio sasoiaren aurretik, arrano gazteek guneagaz lotzen dira.

Honi esker, aske geratu diren gunea euren jatorritzat hartuko dabe. Honek Urdaibaira bueltatzeko sena indartuko dau, espezie honen izaera filopatrikoa dala ta. Urtero 12 ale askatu dira, elkarren segidako bost urtetan, 2013tik 2017ra. %75a arrak eta %25a emeak, arrek filopatria gehiago daukatelako.



Arrano Arrantzaleak Hacking dorrean

Prozesua

"Eskoziako taldeak, Roy Dennis buru izan dalarik, kumeak emoteko habiak aukeratu egiten ebezan. Eskoziako habiak naturalak dira. Herrialde hartan desagertzeko zorian egotetik 300 habi izatera pasatu da. Aukeratutako kumeak 4-5 aste inguruak izan dira." Behin habietatik atara eta gero Madrilera eramaten ziran aireko garraioan eta handik Urdaibaira errepidez.

Garraioan ale guztien egoera fisikoa asko zaindu izan da. Hacking dorrean edo aklimatazio dorrean sartu aurretik, arrano gazteak markatu, pisatu eta neurtu egin dira.

Arrakasta, bueltatzea

Irailaren 13an alde egin daben azken aleak, geratzen ziran gazte bi eta heldu bat izan dira. Satelitezko transmisore bati esker hauen pausuak jarraitzen doguz. Horrela, hil diren, nondik doazen, eta euren sena ondo ezagutzen da. Izan be, gehienek zuzen zuzenean doaz Gibraltarko itsasartera. Handik, Maroko, Sahara, Senegalera...

"Igaz askatutakoak datorren urtean etorri ahal dira. Pasadan urteko bat dago "Cousteau" izenekoak. Honek, Senegaleetik igortzen dau seinalea. Urte bat eta piku darama bertan. Negua igarotzen badau oso hunkigarria izango da Urdaibaira bueltatzea ikustea".

2013an askatutakoak 2015ean hasi ziran etortzen. Arrakasta handia izan da 4 itzulera egon ziran eta. 2016.ean 3 bueltatu ziran eta 2014.ean bat. Aurton 2013.eko hirurak, 2014.ekoa eta 2015.eko hiru bueltatu dira. Guztira Urdaibaitik 53 arrano arrantzale irten dira. Aurton amaitu dan proiektuaren emaitzik onena arrano arrantzaleen etorrera izango zan. " Urdaibain bikote bi ezartzea izango zan egokiena, horrela hiru helburu nagusiak lortzeko tresna gisa erabili ahal izateko. Hauxe gertatu gertatuko da, baina ez dakigu noiz."

Urdaibai Bird Center-ek lagatutako argazkiak

ferrovial
servicios

**SIEMPRE AL SERVICIO DEL CIUDADANO
CUIDANDO EL MEDIO AMBIENTE**

Bekoibarra, nº 31 / 48300 Gernika-Lumo / Tel. 94 625 47 27

L&L
LOGÍSTICA

**TRANSPORTE,
ALMACENAJE,
DISTRIBUCIÓN...**

Txaporta industrialdea, 2-1
48300 Gernika – Lumo
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es



%Orako MAILEGUA BASKE- PENSIONESEN AURREZTEKO

**AURREZTU,
AHAL
DUZU ETA.**

Irekitze eta kitapen-komisioa: %0.
Finantzatu beharreko gutxieneko
diru-kopurua: 2.400 €.
Adibidea: 3.000 euroko mailegua,
12 hilabeterako eta hileroko
250 euroko kuota: Irekitze-komisioa
%0, UTB %0 eta ITN %0.
Zordundutako zenbateko osoa:
3.000 €. Baskepensiones Banakako
BGA Eren plan hauetara
egindako ekarpenetarako:
Baskepensiones 15,
Baskepensiones 30,
Baskepensiones 60 eta
Baskepensiones Burtza Globala.
Kanpainaren azken eguna:
2017/12/31.





TXARRIBODA, BASERRIKO ERRITUALA

Baserrietako tradizino garrantzitsuenetarikoa izan da txarriboda. Oinarrizko beharrianak jai giroagaz lotzen ebazan erritual honek, neguko gordintasuna jasatzeko beharrezkoak ziran jakiz despentsak betez. San Martinetan, azaroan, baserriek Txarribodak ospatzen dabez, txarria hil eta txarrikiak prestatu eta dastatzeko eguna: txorizoa, odolosteak, solomoa, saiheskia, urdaiazpikoa, pernile...Jarduera hau bizirik iraun eban ia XX. mendearen amaierararte. Orain baserri gutxi batzuk egiten dabe. Familia eta auzokoak batzeko jai handia da, espektakulu kulturala eta gastronomikoa bilakatu da gaur.

Azaroko hotza heldu eta txarrien bizimodu lasaia bukatzen da. Laztan gozoz hazitakoa, hainbeste hilabetez lodituta, bapo jan ondoren, leporaino beteta, txarriaren bizitza goitik behera aldatzen da bat-batean. Txarriboda denboran zehar ia aldatu ez dan errituala da. Ilargiaren arabera, ilbeherako egun bat aukeratzen da txarria hiltzeko. Orduan, korta ilun batera eramaten da txarria, egun batzuk jan barik euki ondoren. Mugimendu handiko

eguna da hau baserrian. Ohikoa denez, familiak eta auzokoek batera egiten dabe lan. Jai eguna izaten zan, bakoitzak, andrak zein gizonek, lan jakin bat betetzen eben. Gizonezkoek animalia hil eta prestatzen eben eta andrazkoak ezkaratzen egiten eben lan, jatekoa prestatu eta odolosteak edota txorizoak eginez.

Ohiko errituala

Kortan, guztia dago prest erritualagaz hasteko. Kakoak, ondo zorrozitutako kutxilloak, eta eskarmentu handiko eskuak prest dagoz. Animaliairen saman kutxiloa sartu eta orduan hasten da txarriboda. Gaur egun, animalia horrenbeste ez sufriduteko, hil aurretik zorobilatu egiten da. Hasteko animalia odolostu egiten da. Odola hartzen da gero odolosteak prestatzeko. Txarria erre egiten da, antxinan sua eginez eta gaur egun sopletez egiten da. Suagaz animaliairen azalan dauden hondar eta zikinkeriak kentzen dira. Azala ondo igurtzi ondoren, garbi garbi geratzen zan. Erreta dagoanean, ondo sikatzeko txarria eskegi egiten da kortan. Geroago txikituko da.

Txarribodan eskaratzea be garrantzitsua da. Hemen txarriaren gibela prestatzen da, porrusalda gozoagaz dastatzeko, lan neketsuaren ondoren indarrak hartzeko. Andreen beharra odolosteak eta txorizoak egitea da. Txorizoak txortatan baserrietako etarteetan eskegi egiten dira sikatzen. 15 egun itxaron beharko da, gutxi gorabehera, eta dastatzeko prest egongo dira.

Ohiturari jarraituaz, beharrezkoa da, auzokoen laguntza eskertzeko txarribodaren generoa partekatzea.

Bostak eta iluna, txerria hiltzeko eguna.

Ezkondutako urtea eta txerria hildako urtea onenak.

*Apiril, biribil, urdea txerri-tokian hil
Txerria gose ezkurra amets.*

El Quijote-n aipamena: “Ya tengo noticias dese libro pero...su San Martín le llegará como a los cerdos”.

Txarriboda Menua, osasun bermeagaz

Baserrietako ohiko bizimoduaren desagertzea, elikadura usadio barriak eta animalien sufrimenduaren aldeko sentiberatasunak txarribodaren ohituraren kontra doaz. Baina, geure kultura gastronomiaren nagusi da eta txarriaren zapora gozoak ahosabai zorrotzenak liluratzen dauz. Guzti honek tradizioa bizirik mantendu dau. Porrusalda sailheskiagaz; indabak sakramentuekaz; solomoa piper gorriekaz, odolosteak, txorizo prijuak, giharrek, txitxikia, txarri hankak, tripakiak eta txarribodak, gibela kipula-saltsan... hauexek dira “txarribodaren menua” osatzen dabezen plater tipikoak. Bere sasoian taberna eta jatetxeek era honetako menuak eskeintzen dabez. Aukerak anitzak dira, gaztelaniazko errefracuak adierazten dauenez (“del cerdo, todo se aprovecha”) txarriaren guztia aprobetxatzen da.

Plater hauek osasun berme guztiak betetzen dabez, mahaikideek lasai egon daitezke. Txarribodek legea bete behar dabe osasun arazoak ekiditzeko. Txarrikia establezimendu publikoetan kontsumitzeko bada, txarria hiltegiaren hil behar da; etxerako bada, baserrian egin ahal da, baina bertan albaitaria egon behar da eta honek gibelaren zati bat eraman behar dau laborategian analizatzeko. Horrela, animaliak parasitorik ez daukala eta giza kontsumorako gai dela ziurtatzeko.

Euskal Herriko herri askotan txarribodak ospatzen dira, ekitaldi publikoak eta jai giroan ospatzekoak. Hauen bitartez baserrietako ohitura hau ezagutzera emoten da eta bizirik mantentzen da. Antxinan, txarribodetan neguari aurre egiteko produktuak egiten ziran eta gaur egun txorizoak, odolosteak eta txarriak, gozamen gastronomikoa bilakatu dira. Horregatik, produktu hauek jasotzea zorte handia eta plazer gastronomikoa da.

**TABERNA
AUZOKOA**

GERNIKA-LUMO
Tel. 94 625 16 66



“Kalitatea bai, baina giro gozoan gure nagusientzat”

Gaiak	Ez Gaiak
1.660 €/hilabetea	1.950 €/hilabetea

BIOTZ SAKRATU
RESIDENCIA - EGOTITZA
Franciscanas Misioneras de la Inmaculada Concepción



Deitu arazo barik:
c/ Sarrua 5, 48360 Mundaka (Bizkaia)
Tel.: 94 687 62 32
www.residenciabiotzsakratu.com



LAGUNTZAK BAI KONTROLA ERE BAI

**GIZARTE-ZERBITZU ETA
PRESTAZIOAK IKUSKATU ETA
KONTROLATZEKO PLANA.**

Zure ahalegina lagungarri izan dadin
behar duenarentzat.

 **Bizkaia**
goazen

